

Jaime Tapia

Bilbo, 1962. Zuzenbide Ekonomikoan doktorea. Arabako Auzitegi Probintzialeko epailea. Demokraziarako Epaileak –Jueces para la Democracia (JpD)– elkarteko bozeramailea da. Hamalau urterekin hasi zen euskara ikasten, baita hizkuntz juridikoa poliki ikasi ere. ETak hil zuen Jose Maria Lidon epailea irakasle izan zuen: “Epaile konprometitu eta aurrerakoia zen. Ikaragarria izan zen bere hilketa. Hala ere, nik terroristen eskubideak defendatu behar ditut, sarritan beste muturrekoen irainak jasan ditudan arren”. Bizkartzainekin dabil.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Jon Rodriguez



«Epaileok ez gaude bake prozesuan, gure lanean ari gara»

Ezkertiarra eta aurrerakoia definitu zaigu Jaime Tapia: “Baita euskalduna ere. Euskalduna sentitu naiz nerabegarotik. Euskara ikastea herri honetako partaide izatearekin lotzen dut”.

Espainiako Estatuaren Zigor Kodea gogortu zuen Jose Maria Aznar presidente ohiaren garaia gogoratu dugu solasaren abiaburuan: “Garai gogorra izan zen. Pentsaera bakarreko joera indartu zen eta aurrerakoiak garen epaileok adierazpenak egiteko une zailak pasa genituen. Legediaren aldetik lege atzerakoiak

indartu ziren: zigor prozeduraren legea zaildu zen, baita, orobat, zigor zuzenbidea ere”.

Mariano Fernandez Bermejo Espainiako Justizia ministroa izendatu berri dute. Zer deritoxo izendapenari?

Fernandez Bermejo ez da PPrentzat egokia, jakina. PPK bere ildoko bat nahiago zukeen. Gobernuak hautatu badu, meritua eta gaitasuna dituelako izango da. Bermejoren ibilbide profesionala ezagututa, kargua betetzeko aukera ona iruditzen zait. Baina kar-

guaren mugetan ariko da, ez da harago joango. Bere nortasuna emango dio karguari, beste zeregin gehiagorik ez. Epaitegietan independentzia eta inpartzialtasuna dago.

Alabaina, bizi dugun gatazka politikoa hizpide, zein neurrian eragiten dute epaileen jarrerek bake prozesuan?

Ez dut uste berez eragiten dutenik. Esaterako, ezker abertzaleko zenbait pertsonaren ustez eragin dugu, nik uste ordea, bake prozesua ondo finkatuta badago, eta aipatu dudana



“Ibarretxe lehendakariaren kasua Espainiako Auzitegi Gorenera iritsitakoan bertan behera geratuko da”.

graduak eman ditza-ke Gobernuak. Batzuen ustez, makro-sumario batzuk zuzenak ez direlako Gobernuak mahai azpiko lana egin behar luke, baina Gobernuak ezin du justizian sartu. Egokiena biolentziarik gabeko egoera batera iristea da, ondoren politika alorreko neurriak hartu ahal izateko, betiere gizartearen oniritziarekin. Atxilotetak direlako ez da aztoratu behar, justiziak bere bidea jarraitu besterik ezin du egin.

Gertaerek eragin dute. Zuk nola bizi izan zenuen, adibidez, Barajasko atentatua?

Pena handiz, noski. Pertsonalki ari naiz, herritarra naizen aldetik. Nire esperantza zapuztu egin zen, baina guk epaileok gure lanarekin jarraitu behar dugu. Su-etena izan edo apurtu bada ere, berdin jokatu behar dugu. Alegia, zenbait hedabidek orain gogorragoak izan behar dugula diote. Inondik inora ere ez. Horren aurka naiz guztiz. Zuzenbidearen Estatuak bere osotasunean jardun behar du, terroristen eskubideen bermatze lanetan barne.

Zer iritzi duzu 18/98+ auziari buruz?

1998 izenean ageri denez, denbora gehiegi pasa da, ez da egokia justizia egiteko bidean. Prozedura akatsak ere baditu antza, instrukzio lana ez bide zen ondo egin. Horrek guztiak zalan-tzak sorrarazten ditu. Zuzenbidearen arabera eta kasuaren muinean erreparatuz gero, zenbait absoluzio eman daiteke. Fiskaltza *Egunkariaren* kasua artxibatzea aztertzen ari da. Fiskaltzak

ez badu argudiorik ez delitu aztarnarik ikusten, zentzuzkoa iruditzen zait auzia bertan behera geratzea.

Garzon epailea modu malguagoz jokatzen ari dela diote batzuek.

Garzon haizeak nora zapiak hara aritu ohi da zuzenbidearen jardueran.

Haize politikoak joa beraz?

Boterean nor dagoen arabera mugitzen ote den, esan nahi dut. Batzuetan honela pentsatzen duela dirudi, bestetan hala. Bere bizitza profesionala ez da lerro bakarrekoa izan, bere ego handiak jardun profesionalean gehiegi eragin omen du.

Epaileek egoa tinko kontrolatu behar duzue, beraz.

Dudarik gabe. Areago, epaileok ez dugu legearen arabeko etika kode bat, baina zenbait lekutan kode moduko bat agertzen ari dira, hau da, sosegua eta erantzukizuna landu, eta pasioak alde batera utzi beharra iradokitzen dizkigun kodea.

Ibarretxe lehendakariaren auzipetze kasua dago epaitegietan. Nola ikusten duzu berau?

Demokraziarako Epaileak (JpD) elkartearen iritziz, zuzenbidearen arabera, lehendakaria auzipetzeko erabakia ez dago ondo argudiatuta ez behar bezala arrazoituta. Auzitegi Gorenak Zapateroren aurkako kereila –Manos Limpiasek ezarria– aztertu eta absolutu du, beraz, EAEko EAEko Auzitegi Nagusiak erabaki bera hartu beharko luke Ibarretxeren auzian. Bestela ere, kasua Espainiako Auzitegi Gorenera iritsitakoan bertan behera geratuko da.

Batasuna alderdi politiko ohiaren auzia hizpide: lehendakaria eta PSEko Lopez eta Ares kideak Batasuneko kideekin edo Otegi, Barrena eta Petrikorena herritarrekin bildu ote dira?

Ikuspuntu juridikotik Batasuna ez da existitzen, juridikoki likidatuta dago. Nahiz eta Otegi edo Permachek esan Batasunaren izenean ari direla, Zuzenbidearen Estatuarentzat ez dira existitzen, Batasunak ez du izate juridikorik, Alderdien legeak ez du onartzen. Demagun, zuk ez dakit zein elkarteko administrazioko zuzendaria zarela esan dezakezu, baina legeak elkarte hori

rru sozial horretako herritarrek benetan uste badute biolentzia terroristak ez duela politikan lekurik, epaileen erabakiek are gutxiago eragingo dute. Epaileok ez gaude bake prozesuan, gu gure lanean ari gara. Erabakiak hartzen ditugu, baina ez gara pentsatzen ari erabaki hau edo hura onuragarria edo kaltegarria ote den prozesuarentzat. Erabaki okerren bat egongo den? Kasuistika arlo guztietan dago.

Justizia eta politika “zirimola” batean murgilduta bide daude. Nola atera daiteke egoera horretatik?

Espainiako Gobernuak egin dezakeena egiten ari da, eta gizarte eragileek pentsatu behar dute epailetzak ez daukala politikan eragin beharrik. Zabalik dauden auziak gatazka gainditu ahala konponduz joango direla pentsatu behar dugu, auzien prozesuak agortu ahala. Gero, Gobernuaren esku izan-go da indultua ematea edo ez. Bake eta normalizazio prozesua ondo joanez gero, indultuak edo hirugarren

EPAILEEN NORTASUNAZ**“Ideologia daukagu, baina gure ideologiak mugak ditu”**

INGURU SOZIALAREN ARABERAKO EPAIEZ: Epailleok gure mugak ditugu, argi eta garbi. Legea inguruaren arabera interpretatu eta aplikatu daiteke, baina mugak betiere mugak dira. Urratu ezin daitezkeen mugak, edo ez erraz behintzat. Gizartearen ingurumaria kontuan hartu behar da, baina zaila da epailleok legeez –batzuek uste duten bezala, eta oker uste ere– gura duguna egitea.

EPAILEGANAKO PRESIOAZ: Eguneroko jardunean eta zigor prozeduretan ez dugu presiorik. Egia da, hedabide eta politikari batzuk saiatzan dira epailleen erabakiak euren nahietara eta helburuetara bideratzen, baina ez dute lortzen.

EPAILEEN IDEOLOGIAZ: Epaille batzuek kontrakoa esan arren, guk ere ideologia daukagu. Baina ideologiak mugak ditu gure lanean. Ezin dugu zuzenbidearen ikuspuntua alde batera utzi eta ideologia erabili, besterik gabe, guk nahi dugun erara erabakitzeke. Ezin da zuzenbidea okertu, malgutu agian, okertu ez.

PPREN ORBITAKO EPAILEEZ: Zenbait auzitegitan badaude eskuinekoak diren pertsonak, epailleak... kontserbadoreak dira. Baliteke ere, ideologia horregatik kargu horietarako aukeratu izana. Baliteke. Ideologia suma dakieke, baina ezin da epaille horiek zuzenbideaz egiten dituzten interpretazioetan antzeman.

EPAILEEN MALGUTASUNAZ: Malgutasuna oso murrizta da, eskasa. Kasuen arabera, kasuz kasu, aztertu eta aplikazioa izan dezakeena. JpD-ren ustez, kasu batzuetan ezin da malgua izan. Pertsona batek delitua egin badu, egin du. Ez dago malgutasunik. Zenbait kasutan, badago 3 urteko kartzela zigorra jartzea edo 6 urtekoa, eta orduan aplikazioa Gobernuaren esku geratzen da [Iñaki de Juanaren kasua, azken epaiaren ostean], baina hori ere legedian dago.

deuseztatu badu, elkarre horren ize-
nean zu ez zara inor. Beraz, bilera
horietan ez da deliturik egin. Manos
Limpisek edo beste edonork gauza
asko esan dezakete, baina juridikoki,
izatekotan, Otegi eta gainerakoak
ezker abertzalearen sentsibilitate bat
ordezkatzan duten herritarrek dira.

**AVT, Manos Limpias edota Ermuko
Foroaren jokamoldeak nola baloratzen
dituzu?**

Espainiako Gobernuaren jarduera
baldintzatzen ari dira, eta zigor pro-
zedura horretarako erabiltzen dute.
Orokorrean justiziaren jarduera eta
politika baldintzatzen dute edo saia-
tzen dira oztzatzen... Nik Zapatero-
ren –eta Ibarretxeren kasua berdín
bukatuko da, esan bezala– kasuan
Auzitegi Gorenaren erabakiarekin bat

**“Oso zaila da zehaztea
Haika-Segi erakunde
terrorista den edo juridikoki
legezko elkarre den. Ez da
erraza, legeek ez baitute
ondo argitzen”**

nator. Talde hauek legez burutu nahi
dutena bete ezina da, alegia Ibarretxe
espetxean sartzea. Egia da, hala ere,
politikan eragitea lortzen dutela.

**Nola baloratzen duzu Haika-Segi auzia-
ri buruzko epaia?**

Auzitegi Gorenak atera berri duen
bigarren epaia ez dut irakurri. Auzi
konplexua da. Hiru epaile egotea, eta

bik alde batera ebatzi eta beste batek
bestera... Oso zaila da kasu hauetan
muga zehaztea Haika-Segi erakunde
terrorista den edo juridikoki legezko
elkarre den. Ez da erraza, legeek ez
baitute ondo argitzen legez kontrako
elkarre den. Hainbat tratatutan
badago horri buruzko zehazpen bat
edo beste, baina terrorismo jarduera
kasu hauetan zehaztea zaila da. Auzi-
tegi Nazionalaren zenbait erabakitan
ahultasunak daude. Epaia berriz ere
irakurri behar dut, baina argudioen
aldaketarik gabe epaia ez da logikoa.
Akusazioak eskatuaren gutxieneko
zigorra ezarri die gazteei –sei urte-
koa– eta hori ere baloratu behar da.

**Gazteek justiziaren aurrean beren
burua entregatzeari zer deritzozu?**

Agertu duten modua eta muntatuta-
ko espektakulua ez dut gustuko, ez da
zuzena. Baina agertzea positiboa da.
Denok nekatuta gaude, eta hobe da
gazteek bide hori hartzea. Itxarope-
nerako bidea zabaltzen duen jarrera
da, agian inozo samar ari naiz. Zapa-
terok optimista antropologikoa dela
dio, eta ni optimista patologikoa naiz.
Agian, gazte hauek praktikan urte
bateko zigorra beteko dute, eta zigo-
rra bete bitartean bake prozesua
indartuz joango da, finean beste kasu
batzuk baino errazagoa da.

**Iñaki de Juana auzia ez da horren erra-
za...**

Ez, ezta gutxiago ere. Gaizki hasi
zelako. Fernandez Aguilar justizia
ministroa Iñaki de Juanak libre irten
behar zuenean, PPren eta hedabideen
eraginez urduri jarri zen eta bere
deklarazioek preso honen etorkizuna
baldintzatu zuten nolabait.

**Alegia, jarrera malguago batek ez
lukeela Zuzenbidearen Estatuaren zen-
tzua kolokan jarriko?**

Ez. Auzitegi Nazionalak beste epai
bat eman zezakeen. 12 urteko zigorra
jarri zionean guztiz arrazoizkoa zen
zigorra leunagoa jartzea edo absolbi-
tzea. Helegitearen ondorengo eraba-
kiak zer dioen ikusi behar dugu, baina
nik hiru urteko zigorra izatea posible
ikusten dut, eta ondoren bere egoera
Gobernuaren esku gelditzea. [Elka-
rriketaren ondoren Auzitegi Gore-
nak hartutako erabaki bera aurreikusit
zuen Jaime Tapia epaileak]. ■